
EITB TALDEAREN OPARIEN POLITIKA

Data Xedea	2022ko maiatzak 1 EITB Taldeko Oparien Politika ezartzea
---------------	---

EITB Taldearen Delituak Prebenitzeko Planaren baitan, hirugarrenek EITB Taldeko langileei egiten dizkieten opari eta ekarpenak mugatu egin behar dira; eta alderantziz ere, EITB Taldeko langileek hirugarrenei egiten dizkieten opari eta ekarpenak ere mugatzeko beharra dago.

Neurri hauek, beraz, interes gatazkak, ustelkeria eta eroskeria, eta merkatu- eta lehiaskea kaltetu lezaketen jarrerak izatea ekiditeko asmoarekin hartzen da.

Horregatik, EITB Taldeko langileek debekatuta dute opari edo mesedeak eskatzea, jasotzea edo ematea, hurrengo arauen arabera:

- Ezein oparik ezin du enpresa erabakietan eraginik izan.
- EITB Taldeko ezein langilek ezin du balio handiko oparirik jaso ezta egin (bitxiak, bidaiak, gailu elektronikoak, etab.)
- EITB Taldeko langileek promozio-opariak jaso eta egin ditzakete. Promozio-opariak dira izen komertziala edo ematen duen enpresaren logotipoa daramatenak.
- EITB Taldeko langileek promozio-opariak ez direnak jaso ditzakete soilik horien balioa 100,00 €-tik (ehun euro) gorakoa ez bada (edo, atzerritar monetan, kopuru horren baliokidea).
- Era berean, EITB Taldeko langileek haien funtzioekin bat datozen eta erlazio komertzial normal baten barruan sar daitezkeen gonbidapenak jaso eta egin ditzakete, postu bakoitzak bere barne hartzen dituen funtzioen arabera, esaterako, kirol jardunaldiak, jardunaldi kulturalak, gizarte jardunaldiak edo jatetxeetan bazkariak/afariak.
- EITB Taldeko langileek debekatuta dute dirutan opariak jaso edo egitea, nazio edo atzerriko monetan badira ere, fisikoki edo transferentzia elektronikoki, diru-zorro elektronikoki, edota dirua edo salgaiengatik trukatu daitezkeen kreditu titulu, akzio edo bestelako ziurtagirien bidez.
- Urrezko, zilarrezko edo harribitxizko opariak jasotzea eta egitea debekatuta dago.
- Debekatuta dago EITB Taldeko langileek bezero edo hornitzaileengandik publiko orokorrari eskaintzen zaizkion deskontuak baino handiagoak jasotzea produktu edo zerbitzuen salerosketengatik, salbu eta EITB Taldeko langile guztiei modu orokorrean eskaintzen bazaizkie. Alderantziz ere, EITB Taldeko langileek horrelakorik egitea ere debekatuta dago, salbu eta deskontu horiek modu orokorrean ematen badira.

- Debe katuta dago EITB Taldeko langileek bezero edo hornitzaileengandik mesede edo zerbitzuak dohainik jaso edo ematea eta, alderantziz ere, EITB Taldeko langileek horrelakorik egitea ere debe katuta dago.
- EITB Taldeko langileek modu zuzenean bakarrik jaso ditzakete baimendutako opari eta mesedeak, ez senide edo beste bitartekari baten bitartez, ezta EITB Taldearen egoitzatik kanpo ere ezin dituzte jaso. Modu berean, baimendutako opari eta mesedeak modu zuzenean bakarrik egin daitezke, dagokion enpresaren egoitzan.
- EITB Taldeak bakarrik promozio opariak egin ditzake. Hornitzaile edo hirugarrenen enpresa-politikek horrelako opariak jasotzeko aukera mugatzen badute, EITB Taldeko opariak muga horietara egokitu beharko dira.
- EITB Taldeko lankideren batek baimenduta ez dagoen opariren bat jasoko balu edo jasotako opariaren (edo egitea pentsatu duen opariaren) egokitasunaren inguruko zalantzak balitu, Kontrol Organo Independenteari jakinarazi beharko dio complianceinfo@EITB.eus helbide elektronikora e-mail bat bidaliz, horrek kasuz-kasu jarduteko modua erabaki dezan.